

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 691/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, "Arabako Lanak SA" sozietatearen likidazio organoari proposatzen diona Juan Carlos Corral Torreiro sozietate horren zuzendari-kudeatzaile kargutik kentzea eta egindakoengatik hari eskerrak ematea

Diputatuen Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Egoki jotzen da Arabako Foru Aldundiak zuzenean edo zeharka parte hartzen duen sozietate publikoetako kudeaketa eta administrazio organoei Administrazio Kontseiluaren eta, hain zuzen, sozietateetako zuzendaritza-kudeatzailetzaren zer kide kendu eta nor izendatu proposatzea.

Horregatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKIA

Lehenengoa. Arabako Lanak, SAren likidazio organoari proposatzea Juan Carlos Corral Torreiro sozietate horretako (Foru Administrazioak partaidetza daukan entitateen erregistroko hurrenkera zenbakia: 177) zuzendari-kudeatzaile kargutik kentzea, aipatutako organoak erabakitzen duen egunetik aurrerako ondorioekin, eta eskerrak ematen dizkiona egindako lanagatik.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2016ko urriaren 25a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN